

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren hitzaldia Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuaren osaketa ekitaldian

Gaur eta hemen, Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuaren eratze bilera honetan, euskararen eta euskal kulturaren kanpo zabalpena xede duen *Etxepare Euskal Institutuaren* lehen urratsak ematen ari gara. Sortu da, jaiio, gauzatu dugu.

Euskara eta euskal kultura etxe barruko lau hormetatik mundura / plazara irteteko aldarria egin zuen Beñat Etxeparek XVI. mende hasieran, “*jalgi adi kanpora*”, “*jalgi adi plazara*”, “*jalgi adi mundura*”¹ idatzi zuen, hitzez hitz, *Linguae vasconum primitiae* euskaraz inprimatutako lehen liburuan. XIX. mendean, Iparragirre abeslariak “*eman ta zabaltzazu munduan frutua*” opa zion askatasunaren adierazgarritzat jo zuen Gernikako arbolari. Ondoren, XX. mendean Koldo Mitxelena maisuak ere irekitze beharra adierazi zuen, esan zuenean “*gure herriak gainontzeko herrien artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia*”² eta horretara dator, hain zuzen, Etxepare Euskal Institutua.

Beñat Etxepare idazlearen izena daraman eta euskara eta euskal kulturaren mundu zabalpena helburu duen Institutua gauzatzen dugu Patronatuaren osatze bilera honekin.

Euskaren eta euskal kulturaren joko zelai nagusia eta erabakigarriena euskal gizartearen joko zelaia da, hor irabazi behar du eta irabazten ari da bere etorkizuna, Hori horrela izanda, horrek ez du esan nahi joko zelai bakarra denik, XXI. mendean gizakiok mundua baitugu plaza. Jakin badakigu kanpoan zabaldu behar dugula hemen egiten duguna eta Etxepare kanpo hedapenerako tresna dugu, etxean ez badugu sortzen ez dugu kanpoan zabaltzeko zer izango.

XXI. mendean, inoiz baino gehiago, mundu zabalean txertaturik bizi da euskal gizartea. Ez dugu munduari bizkar emanda bizi nahi, hartu eta eman egin nahi dugu, harremana bizitzaren lege eta aberastasuna delako. Badugulako zer emana, zer irakatsia, baina baita ere zer hartua eta zer ikasia. Euskaldunok munduan egon nahi dugu, ez daukagu besteak baino gauza hoberik, ez okerragorik. Guk gurea dena, gure hizkuntza eta gure kultura, gizarte honek sortutako eta garatutako kultura, eman nahi dugu, munduko plazan txertatu. Jakinda beti ere, zabaltzen ditugun leihoak eta ateak

¹ *Heuscara ialgui adi campora*
Garacico herria
Benedica dadila
Heuscarari eman dio
Behar duyen thornuya.
Heuscara
Ialgui adi plaçara
Berce gendec vste çuten
Ecín scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Enganatu cirela.
Heuscara
Ialgui adi mundura

Linguae vasconum primitiae. 1545

² *Gure herriak gainontzeko herrien artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Diglosiaren purgatorioetatik ibesi goazela, ez gaitetzen ghettoaren infernua eror. Hizkuntza integrazioa beste ezekin bezain beharrezkoa dugu*

ez direla norabide bakarrekoak, gurea eman eta bestetatik jaso nahi baitugu, Gandhik zioen bidetik: “*ez dut nire etxea harresiz inguraturik eta leihoak itxirik nahi. Mundu osoko kulturak laratza gainetik lau haizetara jotzea nahi nuke baina haietako bakar batek ere nirea itzali gabe*”³.

Horretarako sortu dugu Etxepare Euskal Institutua eta ideia hori da, hain zuzen, Etxepare Euskal Institutua sortzeko eta arautzeko Legeak bere zioen azalpenean aipatzen duen lehena:

“Elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa duen mundu globalizatu honetan, Euskadi ezin da izan bere baitan itxita dagoen herrialde bakartu bat; aitzitik, mundura irekita egon behar du eta, kulturen arteko harremanak bultzatu eta haien alde egiteaz gain, bere berezitasuna erantsi behar du.

Gure kanpoko presentzia iraunkor eta aktiboak Euskadiren irudi positiboa islatu behar du munduan, hartara, ezagutza soiletik haratago joanez, nortasun eta identitate propioak dituen etorkizuneko herrialde gisa nazioartean onartua izan dadin”

Eta nortasunaz eta identitateaz ari bagara, nahitaez, esango nuke, hizkuntzaz eta kulturaz aritu behar. Eta natorren berriro ere Legebiltzarrean kontsensu zabalarekin eta kontrako botorik gabe onartu zen Sorrera Legearen zioen azalpenetara:

“Euskarak eta euskal kulturak, bere hizkuntza ofizialeko edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, gure identitatearen ezaugarriak sakonena biltzen dituzte”

Euskara da gure nortasun zeinu nabarmenena, adierazgarriena eta bereizgarriena, eta gainera nortasun edo identitate zeinu hori positiboa da, integratzaile eta kohesio elementua delako eta dugulako. Beraz, alde batetik, euskara, euskal herriaren identitatearen funtsezko elementua, kanpoan sustatu, bultzatu eta hedatuko du Etxepare Institutuak.

Bestetik, kanpoko kultura-aniztasunari eta unibertsaltasunari irekita agertzeaz gain, euskal komunitateak bere identitate kulturalari eutsita proiektatuko du bere burua kanpora, bere adierazpen eta agerbide guztietan. Mitxelena zioen bezala, “*erdara ere hemengo izanik*” bi hizkuntzatan espresatzen den kulturari orain artekoa baino proiektzio handiagoa eman nahi diogu. Gure gizartea plurala da, baita hizkuntza kontuetan ere eta hori aberastasun iturri da. Eta aberastasun iturri delako ez diogu aterik ixten euskaraz bezala gaztelaniaz espresatzen den euskal kulturari.

Hirugarrenik, zintzoki aitortuaz bi hizkuntza ditugula hemengoak, modu berean aitortzen da biak ez daudela oraindik ere maila berean. Batean eta bestean sortzen den kulturak ez dituela ez aukera berak ez eta zabalkunde bera ere. Horrexegatik, Etxepare Euskal Institutuak, “*bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatu eta bermatu*” jardungo du.

Ez dugu ahantzi nahi, ordea, euskara eta erdara, euskara gaztelania eta frantsesa, izan arren hemengoak, egunetik egunera indar eta behar handiagoz, beste hizkuntza batzuk ere badirela, ez “hemengoak” nahi baduzue, baina bai “*hemengoena*”, hemengo jendearenak, alegia. Horrexegatik nahi izan dugu, izena bera izatea egunetik egunera eleanitzagoa den gizarte honen adierazgarri, eta hemendik kanpoko mundu eleaniztunean ibili beharko duelako oroigarri: *Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute*.

Pedro Agerre Axularrek Geron idatzia da “*Ez gaitzela, beraz, gu ere gerokan fida: joanak joan, etorkizuna etorkizun oraina da gure, eta ez bertze!*”⁴

³ “*no quiero mi casa amurallada por todos lados ni mis ventanas selladas. Yo quiero que las culturas de todo el mundo soplen sobre mi bogar tan libremente como sea posible, pero me niego a ser barrido por ninguna de ellas*”

Euskara eta euskal kulturaren kanpo zabalpenerako lana ez dugu orain hasiko, ez gara hutsetik abiatuko. Orain arte egin dugun bidean oina hartuz, bihar-etzikoa bultzatzeko tenorea da oraingoa; indarra hartu aurreranzko jauziari eta bilakaerari ekiteko. Hemen jaiotako Etxepare Euskal Institutuak ez du bere lana hutsetik hasiko eta ez du bere lana bakarrik egin beharko, Institutu honek bere gain hartuko eta garatuko ditu lehenagotik Jaurlaritzak lantzen dituen hizkuntza eta kultura alorreko zabalpenerako lanak, hor txertatuko dira azken urte hauetan garatu diren euskara munduan erakusteko egitasmoak eta euskal kulturaren alor desberdinetan Kultura sailaren bitartez eta alorrean alorreko sektoreen laguntzerekin egiten diren hainbat ekimen.

Etxepare Euskal Institutua Kultura sailari atxikitako berezko gaitasuna eta izaera juridikoa duen zuzenbide pribatuko herri erakundea da eta Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ekintzaren eta hizkuntza- eta kultura-politikaren esparru orokorrean gauzatuko ditu bere jarduerak, euskararen normalizazioan aritzen diren erakundeekin lankidetzeta-harreman sendoak izaten saiatuko da eta bere jarduerak koordinatuko ditu administrazio publikoek egiten dituztenekin, bai eta erakunde publikoaren helburuetara zuzendutako instituzio guztiek egiten dituztenekin, bereziki, euskal komunitate linguistikoa dagoen lurraldeetako erakundeetakoekin.

“*Jalgi hadi mundura*” leloaren bidetik, argi dago beraz XXI. mendean Europar Batasunean txertaturik dagoen herri txiki honek kanpo zabalkundearen beharra baduela. Eta Etxepare Euskal Institutuari dagokio hemendik aurrera lan esparru horiek, luberri hau, sakon eta jori goldatu, erein eta jorratzea, ondoren etorriko baita uzta.

Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera munduan sustatzea, hura partekatzen duten komunitate guztien ekarpenak errespetatuz; euskara nazioartean onartua izan dadin laguntzea eta sustatzea; eta jarduera horiek hedatzen eta horien kalitatea hobetzen lagunduko duten behar adina neurri eta ekintza sustatzea. Euskarari eta euskal kulturari munduko unibertsitateetako atea zabaltzea.

Etxepare Euskal Institutuaren zeregina da euskal kultura, herri honetan sortutako kultura bere forma guztietan kanpora hedatzen laguntzea, hau da, hemengo idazle, zinegile, dantzari, eskultore, margolari, eta abarri beren lana mundu zabalean ezagutzera eman dezaten laguntzea.

Eta Institutuak bere gain hartzen du gure herriaren errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara hurbiltzea, baita euskal komunitateak dauden edo harreman historiko kulturek edo komertzialek hala gomendatzen duten herrietara ere.

Hori da Etxepare Euskal Institutuaren lan esparrua, horri ekin diogu Institutuaren organo nagusienetako bat, Patronatua, eratzen dugun honetan.

Lehen urratsa emana da, bideari ekin zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailearen 14a

⁴ “*Segur bezala dadukat ifernura joaiten diren gebienak gero baten benturan jarririk, hartan fidaturik eta enganaturik joaiten direla. Ez gaitzezela, beraz, gu ere gerokan fida: joanak joan, etorkizuna etorkizun oraina da gure, eta ez bertze!*” GERO Axular, 1643